TEKNOLOGIA

Asmoen adierazpena

DIANA FRANCO EGUREN

Bi lanetan gertatu zait: zuzendaritza arduradunen artean zurrumurruak entzutea, oso esperimentala zen lanpostu batean berria izateak erakundeari suposatzen zion presio ekonomikoaz. Langile baten ikasketa eta egokitze prozesua ekonomikoki amortizatzeko behar den denboraz ziharduten. Dugun gizartean, irabaziak sortzeko espektatiba gauzatu arte, galerak sortzen dituen aldagaiak baino ez gara, sortzen dugun kostuen muga noiz gainditukо dugun bizi dugu txikitatik, kontziente ez izan arren. Betiko kontua da, bizitzaren izaeran inprimatua. Garaiotan, kostua, denboran zein baliabideetan, handitu egin da, beraz, oso serio jarri gara denok, eta eraginkortasunaren gurpilean murgildu gara. Behar horretan AAren negozioa loratzen ari da, pertsonen gaitasunak areagotzeko promesa esku batean, eta, pertsonen gaitasunak ordezkatuz, enpresentzat kostuak murrizteko eta etekinak handitzeko promesa bestean.

Gero eta zailagoa da gozamen kognitiboari loturiko esplorazio, ikasketa eta esperimentaziora bideratzen diren pertsonak eta ekimenak aurkitzea, batez ere langile klasean bizi garenontzat. Langile klasekook plazer hori gutxi dastatu dugu, ezusteko aurkikuntza kognitiboarena alegia, gauzek izan behar duten moduetara egokitzeko, sistemaren eraginkortasuna baliatzeko, ez galtzeko. Eta, despistatu ez gaitezen, gure mugak, gure ezgaitasunak, gure ezjakintasuna... gainditzen "lagunduko" diguten teknologiak eta sistemak sortzen dira etengabe: zertarako ezer egin zure mugetatik abiatuta, munduko gaitasun guztiak erabilita egin badezakezu? Hala ere, bizitza erdigunean jarrita eta inori kalte ez egiteko modu kontzientean behar diren neurri guztiak hartuta, oporretatik asmo batekin bueltatu naiz: ditudan mugak onartuta eta baliatuta, emaitzak kaskarrak izan daitezkeela ulertuta, nire kabuz edo/eta beste batzuekin, kognitiboki, nire buruari esperimentatzeko plazera eskaintzen jarraituko dut. ●

NAZIOARTEA

AEBek ia milioi bat euro bideratuko dituzte Europako hedabide Trumpzaleetara

XABIER LETONA BITERI

Estatu Departamentuko Demokrazia, Giza Eskubideak eta Lanaren Bulegoak bideratu du deialdia *The Redoubt* hedabideak argitaratu duenez. Bertan zehazten denez, Europan hedabideen partzuergo hori antolatzen lagunduko dion erakunde edo enpresaren bila ari dira. Irailaren 1ean bukatzen da deialdian parte hartzeko epea.

Bulegoaren esanetan, ongi informatutako herritarrak funtsezkoak dira demokraziaren osasunarentzat eta, alde horretatik, "kazetaritza independentea" oso garrantzitsua da "gobernuaren jarduerari buruzko informazio objektiboa eta kalitatezkoa emateko". Ikusita "Europako gobernuek nola zentsuratzen dituzten haien aldekoak ez diren hedabideak, bulegoak beharrezkoa ikusten du Europar Batasunean eta Europako beste herrialde batzuetan "kazetari eta hedabide independenteen partzuergoa" eratzea.

Estatu Departamentuak, halaber, diru-laguntza horiek jaso nahi dituztenek zertaz idatzi beharko luketen iradokitzen du, besteak beste, honako gaiak aipatuta: "migrazio masiboek segurtasunean eta zuzenbide estatuan duten eraginean" edota "estatuek nola bultzatzen dituzten immigrazio molde horiek".

Donald Trumpek sarritan jo du Europar Batasuneko printzipioen eta estatuburuen aurka publikoki, baita haiek aurrean dituela ere. Alde horretatik, deialdiak zehazten du europar identitate orokorra nabarmentzen duten informazioen aurrean, ondo legokeela estatuetako burujabetza azpimarratzen duten lanak argitaratzea; edo EBren politika orokorrek estatuen askatasunean eta politiketan duten eragina lantzea.

Partzuergo proiektu horretan "modu garrantzitsuan" esku hartu nahiko luke Estatu Departamentuak, besteak beste hura gidatuko duten "pertsona garrantzitsuei" onespena emanda. *Financial Times*-ek uztailean jakinarazi zuenez, Trumpek aurreikusia zuen bost bat milioi euro bideratzea Europako MAGA mugimenduaren zaleei, besteak beste "migrazio gaiak" eta "Mendebaldeko zibilizazioaren ondare partekatua" aintzat hartzen dituzten heinean.

The Redoubt-ek dioenez, dena den, Estatu Departamentuak dagoeneko jarri ditu ia 8 milioi euro helburu horiei begira. Horien artean legoke abuztuaren 14an argitaratutako diru-laguntza deialdia, aztertzeko nola "gobernu atzerritarrek eta beren ordezkariek erabiltzen duten migrazioa arma gisa". ●